

JOXE-MIGEL IZTUETA; LAZKAO TXIKI' REN OMENEZ

Idazle eta bertsolari askok idatzi dabe, Lazkao Txiki'ri buruz, eta nik ez deusuet berari buruzko aparteko azalpen sakonik emongo.

Nik Lazkao Txiki ez neban sarri ikusi zuzenean, bai ostera, telebistan, irratian eta "Bertsolari" izeneko aldizkarian.

Entzuna neukan bertsolari aparta zala eta baita txiste-kontalaria bere. Ori nik neuk pertsonalki egiaztatu aal izan neban, Urtarrilla'k 15ean Mungia'ra etorri zanean, Jon Lopategi eta Mañukorta'gaz batera.

Lenengo tabernarik taberna ibilateari ekin eutsoen eta Lazkao Txiki beste biekaz batera animoso ta pozik ikusten zan.

Ordu batzuk geroago, bertso-afarian ain zuzen, makiña bat barre egin eban jentia Lazkao Txiki'k bertsotan botaten ebazan arrazoiak zirala eta. Zer esanik ez, Lazkao Txiki ta Mañukorta txisteak kontetan asi ziranean. Kasua da ze!, bukatu zala bertso afaria eta bakoitza bere etxera joan zala, bera Lazkao Txiki danori eskua emonez, eta barriro deituteko esanez.

Andik aste batera telebistako berriak; Lazkao Txiki koma egoera larrian egoala zabaldu eben, eta illabete koman egon ondoren, joan jakun Lazkao mendiko artzaia, bere begi biziekin eta irrifarre alaiarekin. Goian bego!

Mungia'n egin eban bere azken bertso afaria eta bertan Lazkao Txiki'k abestutako bertso batzuek doatsuez:

Erri ontara pozaren pozez
ni ere etorri naiz aurtan,
aspaldi ontan nola ez nintzan
alderdioetan izen,
arratsaldeon ta jakin nai det
danok zer moduz zeraten,
egun alai bat jarri nai degu
erriko festak baiño leen.

Poza artu det, gazte euskaldunak,
nik ikusten ditut emen.
Errira etorri ta gauza ori
aditzen egon naiz leenen,
eta gu emen asi gerade
orain bertsoak kantatzen,
gure asaben oitura zaarrak
aurrera bizi daitezen.

Arrats eder bat pasa nai degu
nola fandango ta jota,
ardo pixka bat edanda ere
emen ez zaio inporta.
Ni gaurko ontan triste bizi naiz
txatorik (tragorik) eziñ dut bota,
juandako iru illabetez
regimenean nago ta.

LEGARRETA'TAR ASIER



93-1-15
Lazkao-
Txiki
bertso-
afarian,
bertsoak
kantetan
"Bataklan "
txokoan.

ARIZMENDI-ARRIETA

Jose Maria, zer ikusten dok,
zer nai dok ire errian,
zer egin nai dok lagunaren alde
Arrasaten, lantegian...
zer esaten deuk giza-semeak
beren izerdi artian,
zer merezi jok gaurko gizonak
Jainkoaren izenian.

ondo bizi izatera;
Jainkoa goian, gizona beian,
i oa bion erdira,
zeruetako jakituria
ekarri nairik lurrera.

Anaitasuna eskatzen jagok
AITA onena betitik,
guztiak, bere seme diranez
maitatzen ikusi nairik;
bizi guztia ik emon deutsek,
lan ederrena eginik,

bizitza areek... ik eriotza...
Jainkoari eskeinirik.
Mondragoitarak, pozez, beterik,
kantari nator bidean,
zuen apaiza Markiñarra zan
gogo ta biotz betean;
Bizkaitik jun zan argi gozoa,
egi barri usaiñean,
AITAK esana egitearren
langille maite artean.

PAULIN

Zenbat lan ein dok apaiz bizitzan...
gora ta bera begira...
gizon probiak naituk goratu